

42 » 'Crazy Heart' filmeko lanagatik, bere lehen Oscar saria irabaz dezake Jeff Bridges aktoreak



Antzekotasunak baino gehiago, ezberdintasunak antzeman ditu bi kantagintzen artean Marc Bioscak. JON URBE / ARGAZKI PRESS

Nor bere nazioari kantari

1960-1970 urteetako euskal kantagintza berria eta Kataluniako alderatu ditu liburu batean Marc Bioscak

Ainhoa Sarasola Donostia

Kantagintza berri batek astindu zuen Euskal Herriko kultur mugimendua 1960ko eta 1970eko urteetan. Kultura ez ezik, herria ulertzeko modu bat gorpuzten eta nazio nortasuna eraikitzen eragin izan zuten kanta haiek. Gauza bera gertatu zen Herrialde Katalanetan ere, kantari belaunaldi berri baten eskutik sortutako *Nova canció catalana*-rekin. Frankismoaren azken urteetan garatutako mugimenduak aztertu eta alderatu ditu Marc Biosca I Llahi soziologo eta politologoak (Lleida, Katalunia, 1980), Alberdania-

rekin argitara emandako *Haiek zergatik deitzen diote Euskal Herria eta guk Ithaka?* liburuan. Antton Olanok itzuli du katalanezko jatorrizko lana euskarara.

Diktaturaren kultur politikak eta testuingurua dituzte bi mugimenduok antzekotasun nagusi. «Frankismoaren irizpidea kultur arloan folklorizazio hutsa egitea izan zen, edota eskuratzen zailak ziren publikazio gutxi batzuk baimentzea. Hala, erdian espazio oso bat geratu zen, eta kantagintzak ardatz hori hautsi egin zuen, irauli», Bioscaren hitzetan. Herri musika landuz eta goratuz, batetik, eta «maila altuko kultura» hura gizareratuz, bestetik, egin zuen hori kantagintza berriak. «Frankismoak ez zuen soilik bere politika ezarri, aurretik zegoen gutzia ere moztu zuen, eta asko zen atzean zegoena. Hala, kantagintzaren gaitasuna izan zen gelditik zegoen hori gutzia berpiztea».

Horraino antzekotasunak, mugimenduon artean ezberdintasunak gehiago baitira Bioscaren azterketaren arabera. «Hitzak eta landutako gaiak aztertuta, konturatzaren zara euskal kantagintza eta katalana oso ezberdinak dira». Hortik liburuaren izenburua.



«Hitzak eta landutako gaiak aztertuta, euskal kantagintza eta katalana oso ezberdinak dira»

MARC BIOSCA
Soziologoa eta politologoa

«Euskal kantagintzan ikuspegi zabal batetik Euskal Herria izan daitekeenaren kontzeptualizazio lan handia egon da; zentzu historikoan, lurraldetasunari, paisaiari, mitologiari, memoriari edo politikari dagokionez. Ordea, Kata-

lunian ez. Itakaz hitz egiten dut ezin esan daitekeen baina denok nahiko genukeen espazioa azaltzeko. Euskal kantagintzan argi dago, Euskal Herria, baina Katalunian ez zen egon kontzeptu hori». Hala, euskal kantagintzak nazio nortasuna gehiago sakondu zuela uste du. «Katalanak ere landu zuen, baina ez horrenbeste».

Hizkuntzari dagokionez ere, ezberdintasunak antzeman ditu Bioscak. Euskal kantagintza elebakarra da, euskaraz kantatzen zuten Mikel Laboak, Benito Lertxundiak, Xabier Letek nahiz mugimenduko beste kideek. Katalunian, ordea, elebitasunera jo zuten hainbat kantarik —Joan Manuel Serratek, kasu—, eta horrek eragina izan zuen mugimenduan. Halaber, euskarari berari kantatu zioten euskal kantari askok, baina gutxi dira katalanen artean katalanari kantatu ziotenak. Euskal paisaiei eginiko erreferentziak ere ugariak dira, Kataluniako kantagintzan ez bezala. Halaber, Bartzelonara jo zuten kantari katalan gehienek, eta gizarte maila jakin batean garatu zuten kantagintza; unibertsitatearen inguruan, maila ertain-altuan. Euskal kantari gehienek, berriz, nork bere herrian bizitzen jarraitu zuten.

Gaiari buruz azterlan gutxi

«Adostasun handia dago garai hartan kultur arloan eginiko gauzarik garrantzitsuenak kantagintzarena izan zela, bai Euskal Herrian bai Herrialde Katalanetan; kantagintza garai hartan lantzen ari zen nazio berreraikuntzaren parean joan zen», Bioscaren esanetan. Hala ere, fenomeno horrek garatutako ezaugarri politiko eta soziologikoei buruz ikerketarik ia ez dagoela iritzi dio. Gaia aztertzeko ideia «berdin-berdin sor zitekeen hemen, eta oso diferente aterako zen lana». Inazio Mujika editorearen ustez. Gaia euskal ikuspegitik aztertzeraz animatu du.

→ Laburrak

Azken agurra emango diote gaur Bidadorri

LITERATURA » Asteartean hil, eta gaur jasoko du lagunenez azken agurra Joxe Miel Bidador idazle, historialari eta literatura ikerlariak Artikan (Nafarroa). Kultur Etxean 19:00etan hasiko da haren omenezko ekitaldia. Alor askotan aritu zen Bidadorri lanean, eta hainbat kultur esparrutako lagunak izango dira, horregatik, haren omenezko testuak irakurri, argazkiak proiektatu eta dantzak eskainiko dizkietenak.

Paul Weller ariko da Bilbo BBK Live jaialdian

MUSIKA » Paul Weller, Mod mugimenduaren aitzindari jotzen dena, ariko da Kobetamendin uztailean, Bilbao BBK Live 2010 jaialdian. Faith No More eta Alice In Chains taldeek ere joko dutela jakinarazi zuten atzo. Karteleko zerrendari batu zaizkion taldeen artean daude, besteak beste, Skunk Anansie, Gogol Bordello, Dropkick Murphys eta Volbeat. Aurrez baieztatuta zeuden Pearl Jam, Slayer edo Rammsteinek joko dute.

Aztergai da Euskal Artista Berrien Artxiboa sortzea

ARTEA » Euskal Artista Berrien Artxibo bat sortzea aztergai dagoela jakinarazi du Ana Valdeolivasek. Amarika proiektuko kideak. Valdeolivasek ustez, artista berrien jarduerak ezagutarazteko tresna «gutzit erabilgarria» litzateke artxiboa. Eta baita artista horiek Espainiako artisten sarean sartu eta lan eskaintza gehiago lortu ahal izateko ere.

Irudia » Bilbo



HAURRENTZAKO HIRU IRAKURGAI

Haurrentzat idatzi dute Leire Bilbaok eta Morkotsek *Olagarro bat bainuontziari*; Antxiñe Mendizabalek eta Jokin Mitxelena *Lotsatia naiz, eta*

zer?; eta hainbat idazlek *Txori kantariak, poeta hegariak*, Elena Odriozolaren marrakiak dituenak. Elkarrek argitaratu ditu hirurak. L.JAUREGALIZO/ARP

harpidedunentzat
Kioskoa sarrerak
Atera etekinak Berriaren harpidetzari!
berriak gonbidatzen zaitu

XABAINITOR

Gorringo taldea



AREETAKO MUSIKA ESKOLA
GETXO
Martxoak 6
20:00

Saridunak:

Erremontena Ortiz, Gorka (Algortia)
Erremontena Ortiz, Xabier (Barrika)
Azkoitia Azpitarte, Trino (Getxo)
Arranz Alaña, Kontxi (Santurtzi)
Santurtziko Udala Euskaltegia (Santurtzi)

Antolatzailea: **Getxo**

Saridunek bina sarrera izango dituzte leihaltan.
Harpidedun txartela erakutsi beharko dute ziurtagiri moduan.

AUKERA EZAZU,
BIZI EUSKARAZ
berria